

noaua

Larunbatean, Klik Eguna

**Erraustegiaren beharrik
ez dagoela berretsi du
GuraSOsek**

**Beterri Km0, tokikoa
sustatzeko egitasmoa**

Sagardo Eguna, iruditan



Ederitu zaitez!

Enar
ESTETIKA



EZKONDUKO ZARA?
EMAZTEGAI TRATAMENDU BEREZIAK
TRATAMENDU KOKTEL EZBERDINAK

Munaiurra 2, Usurbil 943 571 680
www.enarestetika.com



Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA

Artzabal baserria 626 603 600

UDABERRI BEGIRA
JARRI ZURE AZALA PREST



AURPEGI GARBIKETA: 35€
GORPUTZGARBIKETA: 35€
PRESOTERAPIA:
SESIO 1: 20€ 10 SESIO: 125€
-PEDIKURA -MANIKURA,
-BETILEEN TINTAKETA IRAUNKORRA
-MIKROPIGMENTAZIOA
-LASER IODO -DEPILAZIOAK

INTZA
ESTETIKA ZENTROA

Egondorion Inetel
Munaiurra 2, Usurbil Tel: 943 56 34 41

Elexpe
ileapaindegia



- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaia
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Munai Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

GOLDWELL
ELUMEN

9.00etatik 19.00etara zabalik

ileapaindegia

mistoa

BIOLOGO BATEK
MIKROSKOPIOZ
EGINDAKO BURU-AZAL
ETA ILEAREN AZTERKETA

KONTSULTA DOAN!

Zubioameneo 4, Usurbil • 943 361 951

Albiste iruditan

Zaindu beharreko igel espeziea ezagutzen

Urria den eta soilik inguruotan dugu hegoaldeko zuhaitz-igel, zaindu beharreko espeziea gertutik ezagutzera joan ziren maiatzaren 19an inguruotan ditugun putzuetako batera, Aginagatik Artikula ondora, Antxomolantxa Elkartek antolaturiko irteeran. “Igel eta narrastiak ikusteko asmoz kuadrila polita osatu da mendi txangora”, zioten antolatzaileek sare sozialen bidez. Aranzadi Elkarteko kideen azalpenak jaso zituzten. “Aginagan izan gara gaur bertako anfibioak eta narrastiak ezagutzeko irteera gidatua! Uhandre palmatua, uhandre marmolaiarea, zirauna, musker berdea... Giro ederra, eta eguraldi ezinhobeia”, Aranzadiko kideen esanetan.

Argazkia: Antxomolantxa Elkartea.



Aurreko larunbatean, igelak eta narrastiak ikusteko asmoz kuadrila polita batu zen Aginaga aldean.

Laburrean

Maiatzaren 24an, EHBilduren batzarra

2019ko udal eta foru hauteskundeei begira, herrialdeko eta hiriburueta zerrendaburuak aukeratzeko barne-prozedura abiatu du EHBilduk. Horren eta lantzen hasiak diren hauteskunde-plangintzaren berri eman eta gai honi buruz ekarpenak jasotzeko herri batzarra deitu du Usurbilgo EHBilduk ostegun honetarako 19:00etan Potxoenean.

Ostegun honetan, pentsioen gaineko asanblada

Aginagako Arratek, Santueneako Gure Elkartek eta Usurbilgo Gure Pakea jubilatutako elkarteek pentsioen gaineko herri asanblada deitu dute ostegunerako (maiatzak 24) 18:30etan Sutegin. Donostiako Jubilatuen Asanbladako kide Marian Esnaola ariko da hizlari lanetan. Gogoan izan bestalde, larunbaterako manifestazioak deitu dituztela hiriburuetan.

Maiatzaren 30ean, hitzaldia Bihurri ludotekan

Gurasoei zuzenduriko hitzaldi-solasaldi irekia antolatu du Bihurri ludotekak maiatzaren 30erako 17:00etan ludotekan bertan; “Identitatearen ibilbidea: neska-mutil anitzak, sexualitatea, transexualitatea”.

Usurbilgo Sexu Aholkularitza Guneak arduradun Elena Jimenez ariko da hizlari lanetan.

noqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkartea@noaua.eus // www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiete, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldia,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis
Elortza, Pello Aranburu, Xabier
Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-
nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta
Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herreria!



Imanol Ubeda

Bisitariak Sagardo Egunean

- Susanne, surf egitera joango gara ala Usurbilgo Sagardo Eguna? Zer nahiago duzu? - Sagardo Eguna!

Alemaniarra da Susanne eta Donostiara iritsi berri da. Duela bi urte, hiriko gazte koadrila baten pisuan igaro zuen uda osoa. Orain, Donostian egin zituen lagunen-gana etorri da bisitan. Egun seinalatuan iritsi da, Usurbilgo Sagardo Egunean.

Hortaz, surf kontuak beste baterako utzi eta Donostiatik hona trenetaz etortzeko plana egin dute. Espediziora beste bi lagun batu dira: Dante suediarra eta Chandra mexikarra. Eta sherpa lanak egi-

ten, Donostiako pisu horretako gazteak. Bazkalostean batu gara eurekin.

Bisitari denek zuten sagardoaren berri. Eta bazekiten, gutxi asko, sagardoa nola zerbitzatzen den. Gutako batek zera aipatu duen arte: "ez da hain goitik bota behar". Sagardoa ona bada, ez dela sagardoaren txinparta lehertu behar. Aldaera berria egokitzen eman dute bisitariak.

"Basoan baino, orain kopan edan behar dela diote", aipatu du beste batek. Zalantza bisitarien begietan. "Bai, ardoa bezalaxe". Adostasun keinua egin dute. Badaezpada inor ez da kopa bila altxa, eta aurretik

eskuartearen zituzten basoetatik jarraitu dute edanean.

Halaxe egon gara denbora luze batez. Mikel Laboa plazan, eguzkitan, sagardo botilaren bueltan.

Iluntzen hasi du. Bada etxera itzultzeko ordua. Tren geltoki aldera abiatu da Donostiako espedizio kosmopolita eta besteak bizikletan bila joan gara.

Laurok dendararen parean dagoen bus geltokian, kanpotar itxura duen beste gazte bat ikusi dugu. "Autobusaren zain al zaude?", galde egin diogu. Baietz, berak. "Sagardo Eguna denez, autobusa ez da kaxkoraino sartzen", guk erantzun. "San Inazioko

errotondaraino jaitsi behar-ko duzu". Nondik nora den azaldu eta hantxe abiatu da gaztea.

Hau irakurri eta gero, ajeak jota zauden antolatzaile hori, santu izan bedi zure izena, egin bedi zure nahia, zeruan bezala lurrean ere. Emaiguzu datorren urtean egun handiari dagokion sagardo litro nahikoa; barkatu gure baso hautsiak, guk ere botea jartzea ahazten zaienei barkatzen diegunez gero; eta ez tentaldian erori, atera itzazu euskaldunak gaitzetik eta ez ezazu Usurbilgo Sagardo Eguna Usurbil Cider Day izenarekin bataiatu. Amen.

Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Aritz Gorriti | **Imanol Ubeda** | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

UEU-ren Jakin Jardunaldian matrikulatzeko epea zabalik

Zabalik dago jada, iaz bezala Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) Usurbilgo Udalarekin eta Jakin Fundazioarekin elkarlanean, uztailaren 12 eta 13rako Udarregi Ikastolan antolatu duen Jakin Jardunaldian matrikulatzeko epea. Honatx aurtengo edizioako izenburua: "Utopia 68/18. Iruditeria berrien bila".

■ Epea: uztailak 12-13 (ostegun eta ostirala).

■ Tokia: Udarregi Ikastola.

■ Orduetgia:

Uztailak 12: 09:30-16:30 / 09:30-12:30.

■ Ordu kopurua: 8,50 ordu.

■ Matrikulazio epea: maiatzak 14-uztailak 9.

■ Matrikula prezioak: 10 euro.

■ Zehaztasunak: "1968ko udaberrian mundu berri baten aldarri egin zen Parisen, Berlinen, Pragan, Mexikon. Baita Euskal

Herrian ere. Urte erabakigarriak izan ziren utopia kritiko eta eraikitzaileak pentsatu eta praktikan jartzeko. 50 urte geroago, zeri deitzen diogun utopia, eta ze iruditeria kolektibo eraiki eta partekatzen ari garen eta nola berritu ditzakegun aztertu nahi dugu. Utopia, jada, ez da iristezina den leku hura, baizik eta posible denaren zentzua zabaltzeko eraldaketa-praktika bide bat. Utopia berriak indar hartzen ari dira gurean, horien artean zaintzaren utopia eta utopia sozio-ekologikoa ditugu".

Edukiak

Uztailaren 12a, osteguna

■ 9:00-9:30 Harrera eta material banaketa.

■ 9:30-9:45 Lorea Agirre Dorronsoro (Jakin): Utopiari sarrrera.

■ 9:45-10:45 Amaia Lasa

(idazlea, poeta eta irakaslea): Nondik gatoz, non gaude.

■ 11:00-11:30 Atsedenaaldia.

■ 11:30-12:15 Alba Garmendia (EHUko Filosofia Saileko doktoregaia): Utopia klasikoak eta berriak.

■ 12:15-13:30 Edu Apodaka (EHUko Soziologia irakaslea): Praxia, pragmatismoa eta utopia elkartzen diren tokia.

■ 13:30-14:45 Bazkaria. "Elkarrekin bazkaltzeko aukera eskainiko dugu, eman izena bazkarian matrikulatzerakoan. Prezioa: 15,00 euro".

Zaintzaren Utopia

■ 15:00-15:45 Uzuri Aboitz (Universitat de Barcelonako Gizarte Antropologia Saileko doktoregaia): Zaintzak erdigunera. Aukerak, arriskuak eta zenbait galdera.

■ 15:50-16:30 Bego Zearreta (Bizkaiko Zahar egoitzetako

langile grebalaria): Zaintzaren aldeko borroka.

Uztailaren 13a, ostirala

Utopia sozioekologikoa

■ 9.30-10:30 Iñaki Barcena (EHUko Politika Saileko irakaslea): Eko-Sozialismo-Feminista, utopia berri bat?

■ 10:30-11:15 Anaiz Agirre eta Xabier Harlouxet (Bizi! mugimendua): Alternatiba burujabe bat lantzen.

■ 11:15-11:45 Atsedenaaldia.

■ 11:45-12:30 Bego Huarte (Ongi Etorri Errefuxiatuak plataforma): Harrera herria nola antolatu.

Alergia eta dieta bereziak

Atsedenaaldietan mokautxo bat eskainiko dute, "adierazi mesedez alergia, intolerantzia eta dieta bereziak matrikulatzerakoan".

Lankidetza hitzarmena berritu dute Udalak eta Zumartek

Azkeneko 2014an sinatu zuten 4 urterako hitzarmena berritu dute Usurbilgo Udalak eta Zumarte Musika Eskolak. Oraingo hau, epe laburrerako; bi urterako, musika eskolaren "egoitzaren obrak amaitu eta ekipatu ondoren erabiltzen hasten den artekoa izango da, 2019-2020ko ikasturtea aurre ikusten delarik, hala ere gehienez ere lau urtekoa izango da".

Hilabete hasieran izandako ezohiko osoko bilkuran udalbatzak aho batez onarturiko hitzarmenak Zumartek jasoko duen diru-laguntza erregimena eta prekarioz utzitako lokalen erabilera arautzen du. Musika Eskolaren aurrekontuaren %33ko ekarpena egingo du Udalak. Gainerakoa, Jaurlaritzak eta erabiltzaileek ordaindutako kuotek.

Matrikulatzeko azken egunak
2018-19 ikasturterako izen emateko epea maiatzaren 25 honetan itxiko du Zumartek. Matrikulatzeko bi bide dituzue: Puntapax 10, beheka kaleko bu-



Bi urterako hitzarmena sinatu dute Udalak eta Zumarte Musika Eskolak.

MATRIKULAZIO GARAIA

**"2018-2019
ikasturterako izen
emateko epea
maiatzaren 25ean
itxiko du Zumarte
Musika Eskolak"**

legora gerturatuz (bertan eskuratu daitezke inprimakiak) arratsalde 16:30-19:00 artean edo ostegun goizean, 10:30-12:30 artean. On-line bidez zumarte.eus web orriko inprimakia bete eta bidali. Honatx

ikasturte berrian, 4 urtetik gorakoentzat eskainiko dituzten ikasgaiak: Musika txokoa, musika mintzaira, helduentzako musika mintzaira, tronpeta, tronboia, saxofoia, bonbardinoia, biolina, biola, perkusioa, klarineta, eskusoinua, trikitixa, panderoa, pianoa, txistua, gitarra, flauta, organoa, teknika bokala, abesbatza eta talde instrumentalak.

Informazio gehiago:

Puntapax 10, beheka
943 371 594
www.zumarte.eus

Matrikulazioa bi modutara egin daiteke aurten

Aurten bi modutara egin ahal izango da. On-line, musika eskolaren web orriaren bitartez, edota Zumarte Musika Eskolaren bulegoan bertaratu.

Online: Inprimakia zumarte.eus helbidean on-line bete eta bidali.

Bulegoan: Inprimakia bulegoan jaso, eskuz bete eta musika eskolako bulegoan entregatu (Puntapax 10, beheka).

■ Matrikulazio egunak:

Maiatzak 21-25.

■ Goizez (asteartea eta ostegu-

na): 10:30-12:30 bitarte.

■ Arratsalde (egunero):
16:30etik 19:00bitarte.

Informazio gehiago:

Bulegoan (Puntapax 10, beheka).
943371594.

www.zumarte.eus

Herriko artistekin solasaldia eta ondoren kontzertua

Euskara, aisia eta arteari eskainitako hilabetea borobiltzeko, azken bi hitzorduak deitu ditu gazte mugimenduak ostiral honetarako (maiatzak 25). 21:30ean Usurbilgo artixtekin solasaldia Potxoenean. "Aurretik aipatutako dinamika guztiak bezala, honako hau ere herritar guztientzat bideratua dagoela garbi utzi nahi dugu, guztiok barruan daukagun artixta azaleratzeko asmotan". Solasaldiaren ostean, Andoni bakarlaria Sutegi kanpoan.

"Sagarrondotik

Sagardora" ikastaroa

Alkartasuna Kooperatibak antolaturiko ikastaro praktikoko hurrengo saioa ekainaren 2an, 09:00-13:00 artean Potxoenean. "Sagastien udako kimaketa, gaitzak eta izurriteak" Aitor Etxeandierekin.

KzGuneko hurrengo ikastaroak

Maiatzaren 31ra arte goizez izango da zabalik, 09:00-13:00 artean. Eta ekainaren 1etik aurrera arratsalde, 16:00-20:00 artean. Datozen ikastaroak:

■ Maiatzak 28-29, 16:00-18:00 "Online izapideak Osakidetza-rekin".

■ Maiatzak 30-31, 16:00-18:00 "Eusko Jaurilaritza zure mugikorrean".

Informazio gehiago:

Kale Nagusia, 37
943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net

Otar-Goxo
Elizagaia
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
RPS: 28/17
20170
USURBIL

“Handiena bizitza dela aldarrikatuko dugu kalean eta elkarrekin”

A bian dute Donostian, Bizitza Da Handiena aldarripean, borroka sozialen astea. “Herriarren gehiengoaren aurka eta gutxiengo baten alde inposatzen dizkiguten politika eta erabakiei aurre egiteko astea izango da”, datorren hau, maiatzaren 27ra arte.

Igandera arte, iragarri dutenez, “handiena bizitza dela aldarrikatuko dugu kalean eta elkarrekin!”. Hamaika borroka sozialen astea (tartean, erraustegiaren aurkakoa ere izango da); “herri mugimendu eta sindikatu mordoaren indarren bateratze hau baliatuko dugu egunero-egunero zapaltzen gaituzten horiei aurre egiteko, herri boterea eraikitzen jarraitzeko”, iragarri zuten aste hau abiatzeko aurreko larunbatean Donostian egin zuten agerraldian.

Asanbladak egunero

Bulebarrean jarria zuten biltzeko hitzordua. Bertan elkartu eta gero, kalejiran Donostiako erdigunerantz jo zuten. Gipuzkoa plaza Askatasuna hiribidearekin lotzen duen Idiakez kalea, 6raino. Helbide



“Bizitza da handiena” ekimenarekin bat egin dute hainbat lagunek Usurbilen.

BIZITZA DA HANDIENA

“Herri mugimendu eta sindikatu mordoaren indarren bateratze hau baliatuko dugu egunero-egunero zapaltzen gaituzten horiei aurre egiteko”

horretan, aspalditik hutsik zegoen eraikin publikora sartu ziren. Borroka sozialen aste

honen erreferentzia puntua izango da eraikin hau, kalean aldarrikatuko baitute bizitza dela dugu handiena.

Atarian eskaini zuten prentsaurrekoa eguerdian, hurrengo egunotarako xehetasunak eskaintzeko. Tartean, egunero 19:30ean asanblada egingo dela iragarri zuten.

60 bat herri mugimenduk eta sindikatuak bat egin dute ekimenarekin; Erraustegiaren

Aurkako Mugimenduak eta hainbat herritarrek tartean. Jendea kanpaldi honetan parte hartzerantz deitzen dituzte. “Aste oso bat ekimenez josiko dugu, kolorez jantziko dugu Donostia, elkartasunetik, alaitasunetik eta herritik borrokatuz. Astebeteko kanpaldi bat egingo dugu horretarako”. Informazio gehiago, Bizitza Da Handiena izenarekin zabaltzen dituzten sare sozialetako orrialdeetan.

Gaika bildutakoa, kalitate handikoa

Inguruetan baino paper eta kartoi eta ontzi arin gehiago bereizi eta biltzen dira gaika Usurbilen. Eta etxeko lanak ondo egiten dituzte herritarrek, bereizitakoa kalitate handikoa da eta, Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez. Ecoembesek helarazi dizkion iazko datuek argi erakusten dute:

Papera eta kartoia:

■ 394.940 kg (iaz baino %3,93 gehiago). Herritar bakoitzeko 63,73 kg.

Ontzi arinak:

■ 275.400 kg (iaz baino %2,27 gehiago). Herritar bakoitzeko 44,45 kg.

■ %11,2ko inpropioak (2015ean %17,1, 2016an %13,5).



Bereizitakoa kalitate handikoa da, Udaletik berri eman dutenez.

10.000 herritar baino gehiago, eztabaida eske

EITB-k erraustegiari buruzko eztabaida ematea eskatzen zutenen milaka sinadura, Miramongo egoitzara heldu ziren maiatzaren 17an, egun ezin sinbolikoagoan; Birziklatzearen Nazioarteko Egunean. Iragarri moduan, Erraustetaren Aurkako Mugimenduak deituta “Eztabaida tekniko, informazio eskubidea” aldarripean EITB atarian egin duten elkarretaratzean izan zen.

Aipatu mugimenduko bi kide Miramongo ordezkari batekin bildu ziren. Azken hila beteotan change.org atarian bildu dituzten 10.000 sinadura baino gehiago aurkeztu eta erraustegiari buruzko eztabaida ematea eskatu zuten. “Zorionak guztioi! Helburu guztiak gaindituta, 10.000 sinadura baino gehiago lortu



10.000 sinadura baino gehiago aurkeztu eta erraustegiari buruzko eztabaida ematea eskatu zuten.

ditugu. Argi geratu da gizar-teak erraustegiaren inguruko eztabaida tekniko behar eta exijitzen duela”, gogorarazi dute sare sozialen bidez.

Ezinegona, Gipuzkoara hedatua

Bildu dituzten sinaduren adierazle argia dela dio

Erraustetaren Aurkako Mugimenduak, “lurralde osoan zabaldua dagoen erraustegiaren inguruko ezinegona”. Beste behin, gogorarazi dutenez, “ez dugu aukera galdu nahi, berriro ere, obren geldialdia eskatu eta alternatiba merke eta osasuntsuagoen aldeko deia luzatzeko”.

Erraustegiak ezkututzen duena plazaratzen

Erraustegiak ezkututzen duena agerian utzi eta berriki izan duten epaiketaren larritasunaz ohartarazten dabilta Gipuzkoan barrena, Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioko lehendakari ohi Ainhoa Intxaurrendi eta Igor Meltxor kazetaria. Aipatu moduan, berriki epaitu dute Intxaurrendi, Iñaki Errazkin foru ingurumen diputatuarekin batera, 2013an Zubietako erraustegiko lanak geratzeagatik. Maiatzaren 17an Zubietan bertan izan zen Ainhoa, Kaxkape egoitzan, Gipuzkoa Zutik mugimenduak tokian tokiko eragileekin elkar-



Maiatzaren 17an, Ainhoa Intxaurrendi eta Zubietako Kaxkape egoitzan izan zen.

lanean (kasu honetan, Zubietan Lantzenekin elkarlanean) antolaturiko “Angula ustelak” hitzaldi ziklo eta elkartasun bi-

raren baitan, erraustegiaren atzetan dagoen negozio eta arau hausteen gaineko argibideak ematen zubietarrei.

Larunbat honetan, Klik Eguna Usurbilen

Ekainaren 10eko giza katea girotzeko xedearekin, Gure Esku Dagok Klik Eguna antolatu du. Larunbat honetan, eguerdi partean, Usurbilgo frontoi inguruan. Erabakitze-ko arrazoiak bilduko dituzte batetik, eta giza katean izena emateko aukera egongo da bestetik. Haurrentzako katea osatzeko tailerra. Helduentzako tailerrak, musikaz girotua.

Ekitaldietan edo Gure Esku Dagoren dinamikan lagundu nahi duenak, jakin bezala ostegunero batzen direla Potoxoenan, 19:00etan hasita.

Erabakitze eskubidea, zergatik eta zertarako?

Gure Esku Dago taldekoek *Zergatik eta zertarako erabaki nahi duzu?* triptikoa banatu dute etxez etxe. Erantzunak bildu nahi dituzte orain. Eta bildutakoaren berri emango dute larunbat honetarako antolatu duten Klik Egunean.

■ Triptikoetan erabakitze-ko arrazoiak idatzi, eta aste-buruetan frontoi inguruko izen emate mahaian, Aginaga eta Santueneko jubilatuek elkartean eta Sutegi udal liburutegian jarriak egongo diren postontzietan bota.

Ekainaren 10eko giza katean izena emateko, non eta noiz?

■ Giza katean parte hartzeko, izena eman behar da aldeaz aurretik. Asteburuetan (ostiral arratsalde, eta larunbat nahiz igande eguerdietan), frontoi inguruan topatuko duzun mahaian. Baita larunbat honetako Klik Egunean ere. Postu hortan, kamisetak eta zapiak erosteko aukera dago.



Frontoian ospatuko da Klik Eguna.

Egungo azpiegiturak baliatuta, erraustegiaren beharrik ez dagoela gogorarazi du GuraSOsek

Aurrerantzean sarritan izango dugu GuraSOS-en berri. Agerraldi sorta iragarri du hurrengo asteotarako. Lehenengoa maiatzaren 16an egin zuen Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean. Gizarteak hondakinen kudeaketaren inguruan duen informazio gabezia saihestu nahi dute, gai gatazkatsu honetan gardentasuna bermatu eta konponbide adostu batera heltzea.

Hainbat galdera erantzun nahi dituzte: zer erre nahi den Zubietako erraustegian, Gipuzkoako hondakinak edo estatukoak ere erraustuko ote diren bertan, hondakinen kudeaketa pribatizatzek zenbateko kostua eragingo dien gipuzkoarrei... “1.000 milioi euro. 6.000 euro familiako”, zehaztu zuten aurreko astean GuraSOsek Donostian eginiko agerraldian. “Nola da posible, austeritaterako deia egiten den garai honetan, 1.000.000.000 euro (familiako 6.000 euro) gastatu nahi izatea beharrezkoa ez den azpiegitura batean?”.

EAE-k, bigarren erraustegi baten beharrik ez

Zubietako erraustegiko lanak berehala geratzeko eskatu dute, ez Gipuzkoak ezta EAE-k ere ez duelako hiri hondakinak kudeatzeko halako bigarren planta baten beharrik. Eguntan hedabideetan zabaltzen den albistea jarri zuten horren guztia adibide gisa. “Bizkaiko Foru Aldundiak Zabalgarbi baliatzeko Gipuzkoari egindako eskaintzaren ondoren, agerian geratu da Donostian eraikitzen ari diren erraustegia ez dela beharrezkoa”, gogorarazi du GuraSOsek.

Aukera hau, hondakinak Zabalgarbira eramatekoa, lehenago zergatik ez den aztertu galdetzen du GuraSOsek, “lehen



“Zergatik ez da Zabalgarbiko aukera aztertu eta baliatu orain arte?”.

GURASOS

“Nola da posible, austeritaterako deia egiten den garai honetan, 1.000.000.000 euro gastatu nahi izatea beharrezkoa ez den azpiegitura batean?”

momentutik” zuten eta, talde honen esanetan, aukera horren berri. “Zergatik ez da aukera hau aztertu eta baliatu orain arte?”.

GuraSOsek aukera hau aztertzeko eskatu izan dio publikoki Eusko Legebiltzarrari, baina “gaur gaurkoz ez du erantzunik jaso”. Lehendik adierazi izan duten moduan, koordinazio eta planifikazio falta egotzi dio, gai honetan ardura eta eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzari. “Arduragabekeria horren ondorioz, soldata eta pentsioen jaitsierak eta murrizketa sozialak bizitzen ari garen garai berean, beharrezkoak ez diren inbertsio izugarriak ari dira izaten”.

“Itsu-itsuan erabaki da beste azpiegitura bat eraikitzea”

Jaurlaritzaren utzikeriari lotutako beste bi adibide. Hiri-hondakinak Mallabia edo Mutiloako zabortegetan isurtzea edo Zubietako erraustegian eskorien

tratamendua egitea baimendu izana, hiri-hondakinak kudeatzeko planaren aurka edo haren babesik gabe. Are gehiago, “GHK-ren baitan Bizkaikoak diren herriak daude (Mallabia adibidez), eta ondorioz, ez da bidezkoa Gipuzkoako foru arauak proiektu honetarako baliatzea: kontratuaren errekurtsoa ez zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak konpondu behar, autonomi erkidego organoek baizik”.

Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundiei eta Jaurlaritzari, euskal erakundeen arteko elkarlana zergatik ez duten sustatu galdetzen die GuraSOsek, zergatik ez den aztertu egungo azpiegiturak nahikoak ote diren. “Itsu-itsuan erabaki da beste azpiegitura bat eraikitzea; baina, aztertu al da nahikoa beharko lukeen? Ze dimentsiotakoa beharko lukeen? Ez bada aztertu, zergatik?”.

Galdera hauentzako erantzun batzuk baditu erraustegiak haien seme-alaben osasunean izan dezakeen eraginagatik kezkatutako guraso taldeak. “Ukaezina den errealtatea manipulatu eta ezkutatzeko, hots, Gipuzkoako balorizazio energetikorako instalazioa ez dela beharrezkoa, ez diola behar tekniko bati erantzuten, baizik eta pultsu politiko bati”, GuraSOsen esanetan.

Gatazka berbideratzeko deia

Beharrezkoa ez dela adierazi izan du aurreko legealdian Foru Aldundian agintean zela, erraustegiko lanak eten zituen EHBilduk. Baina baita egun agintean diren EAJ eta PSE alderdietako hainbat kideek ere. Eta ez orain urte asko, 2013-2016 artean, hedabide ezberdinek jaso izan dutenez.

Testuinguru honetan, GuraSOsek “gizarte eragile eta politikariei dei egiten die aukera hau baliatu eta hondakinen kudeaketaren inguruko gatazka luze hau berbideratzeko. Bada garaia denon artean kohesionatu, elkarlanak erai-ki, eta batzuen nahi edo beharren gainetik guztiona jartzeko. Denok irabazteko garaia da”, nabarmendu zuten.

Deia erakundeei baita, “Gipuzkoako Aldundiari eta GHK-ri, ekonomiaren zein ingurumenaren ikuspegitik abantailak izango dituen irtenbide alternatibo baten aukerak aintzat har ditzaten. Eta era berean, oposizioan dauden taldeei irtenbide adostua erraztu dezaten eskatzen die. Gipuzkoak normaltasuna eta jendartearen konfiantza berreskuratu behar ditu. Gipuzkoa positiboago baterako garaia da”.

Hitzartu diruz laguntzeko deia

Hitzartu prozesuaren baitan, urte amaierara arte aurrekusiak dituzten ekimenak gauzatu ahal izateko herritarron laguntza behar dute. Diru ekarpenak egiteko bi bide dituzte: bono-laguntzak erosiz edota gurasos.org eta hitzartu.eus atarietan ageri diren kontu zenbakietan diru-sarrerak eginez.

LH 6. mailan, Kontsumobide tailerrak

Agenda 21 aren barruan, hondakinen inguruko lanketa bat egin da gure ikastolan. Hau dela eta, Kontsumobidek eskaintzen duen “Kontsumo Prestakuntza Ikastexetan” programan parte hartu dugu, ikastexean bertan egin dituzten hainbat tailerretan parte hartuz. Gure kasuan bi tailer izan dira, “Ontziak eta euren berrerabilpena” eta “Etxeko ekonomia jokoa”.

“Ontziak eta euren berrerabilpena”

Lehenengo tailerrean, Kristina izeneko langile bat izan genuen “irakasle” bezala. Berak, naturatik ateratako hainbat lehengaien ibilbidea azaldu zigun eta, erakutsi zigun hori behin eta berriro gertatzen ari zenez, Lurra planetako lehengaiak murrizten ari direla eta bestalde berotzen ari zela, natura kutsatuz. Eta natura hondatzen ez jarraitzeko brik garbiekin diru zorroak egin genituen, eta apaintzeko aldizkari



“Lehenengo tailerrean, Kristina izeneko langile bat izan genuen ‘irakasle’ bezala. Lurra planetako lehengaiak murrizten ari direla eta bestalde berotzen ari zela, natura kutsatuz”.

LH6KO IKASLEAK

“Murriztu, Berrerabili eta Birziklatu. Zer iruditzen Murrizketatik hasten bagara?”

zahar batzuk erabili genituen.

“Etxeko ekonomia jokoa”

Bigarrenengo tailerrean, gure

etxeko ekonomia aztertzen laguntzeko jolas txiki bat egin genuen. Talde bakoitzari familia txartel batzuk banatu zizkiguten. Txartel horietan familia bakoitzaren datuak genituen. Familia txartel horietaz baliatuz, partxis moduko batean jolastu ginen. Jolas horren helburua, hila-betearen bukaeraraino iristea zen, gastuak kontrolatuz.

Beraz badakizue, Murriztu, Berrerabili eta Birziklatu. Zer iruditzen Murrizketatik hasten bagara?

Askok gozatu genuen tailerretan eta baita asko ikasi ere, berriz errepikatzea espero dugu.

LH6ko Udarregi ikastolako ikasleak.

Ikastolaren 50 urteak musikatu dituzte

Martxoan zehar gaurko nahiz atzoko ikastolako kideek grabaturiko 50. urtemugako diskoa aurkeztu zuten maiatzaren 18an frontoian, Idoia Torregarik aurkeztu eta Jaione Eskudero Udarregiko musika irakasleak zuzendu duen ekitaldian.

Urtemuga berezi honi begira Luken Arkarazok sorturiko abestia jo eta kantatu zuen, egun Usurbilen nahiz herritik kanpo musikari ezagunak ditugun ikasle ohi talde batek. “Gattunk” abestia kantatuz eta dantzatuz amaitu zuten ekitaldia. Gogoan izan, diskoa 6 eurotan eskura dezakezue Lizardi eta Laurok dendetan, Bordatxo tabernan eta Udarre-



Luken Arkarazok sorturiko abestia jo eta kantatu zuten.

gi Ikastolan.

Datorren asteko hitzorduek

Maiatzak 28, astelehena

■ 17:00 LH 5. eta 6. mailako

ikasleen bertso saioa Ikastolako gorriko erdiko aretoan.

Maiatzak 31, osteguna

■ 18:00/18:30 Udarregi Ikas-

tola, Irakaskuntza Kooperatiba Elkartearen ohiko batzar orokorra Sutegin.

Ekainak 2, larunbata

■ 14:00 Udarregi Ikastolaren 50. urtemugako bazkaria Saizar Sagardotegian, ikasle, familia, ikasle ohi eta gurasoentzat. Sagardotegiko menua.

■ Txartelak Aitzagan, Txiribogan, Bentan, Txirristan eta Bordatxon salgai, maiatzaren 31ra arte.

■ Prezioa: 30 euro (menua + kafea + txupittoa).

Informazio gehiago:

udarregi.eus

Baserritarren Eguna, tokiko produktuen plaza

Bertako ekoizleek egiten duten lana ezagutarazi eta tokiko produktuen kontsumoa bultzatzeko baliatu zuten maiatzaren 13an Usurbilen ospaturiko Baserritarren Eguna. Postuetan barrena egingdako osteratxoan, aurrerantzean sarritan ikusi eta entzungo dugun marka berri batekin egin genuen topo. "Usurbil Km 0" izeneko zigilu berriaz ari gara. Marka berriak bertako ekoizle eta produktuak bilduko ditu eta tokiko produktuak sustatuko ditu.

Markaren irudia, eta une honetan sare horretan dauden ekoizleak ezagutzera eman ziren Baserritarren Eguneko ospakizunetan. Haietako batzuk, plazan bertan ospatu zen herriko ekoizle eta produktuen azokan. Gero, jakiekin Oinarrizko Lanbi-



Herriko ekoizleak eta ekoizpena ezagutzeko aukera eskaini zuen Baserritarren Eguneko ospakizunak.

de Heziketako sukaldaritzako ikasleak Baserritarren Eguneko bazkaria prestatzekoak ziren. Aipaturikoa, herriko ekoizleak eta ekoizpena ezagutzeko baliatu zuten maia-

tzaren 13ko azoka:

- Jexux Agirresarobe (Han Goiko arrautzak).
- Koldo Huegun (Borda Txuri, oilaskoak).
- Arkaitz Portularrume

(Barazkiak).

- Basatxerri (Txerri ustiategia).
- Jon Harreguy artzaina.
- Ekogunea (udal baratzak).
- Jexux Agirre (eskuareak).
- Alkartasuna kooperatiba.



Baserritarren Eguna ospatzeko, herri kirolak antolatu zituzten.

“Beterri Km0”, tokikoa sustatzeko

Egun ezin egokiagoa hau-tatu zuten aurkezpen-erako; maiatzaren 15a, San Ixidro, Baserritarren Eguna. Hernaniko udaletxe atariko plazan bildu ziren “Beterri Km0” proiektu berria sustatzen ari diren erakunde, ekoizle eta elkarteetako ordezkariak. Beterri-Buruntzako eskualdeko udalak (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgoak), Behemendi, Donostialdea-Bidasoako landa garapenerako elkartea, Karabeleko, ekonekazaritzaren arloko etxalde esperimental aurrendaria eta Ximaupila, lurraren emankortasuna sustatzeko elkarteetako ordezkariak.

“Bertako nekazal ekoizpena bertako merkatal zirkuitu laburren bidez merkaturatzeko proiektu bat” dela “Beterri Km0”, berri eman zuten. Proiektu honek elkarlanean jarri ditu, eskualdeko ekoizleak, merkataria eta ostalariak eta administrazio publikoak. Guztio-kin eta kontsumitzaile diren herritarrekin batera, sare moduko bat osatu nahi dute, bilgune modukoa, bertan ekoizte, bertan saldu, bertan erosi eta bertan kontsumitzeko. Hau guztia



Dagoeneko bertako produktuak eskaintzen dituzten 30 salmenta puntu inguru daude Buruntzaldeko eskualdean.

Beterri Km0

“Bertako nekazal ekoizpena bertako merkatal zirkuitu laburren bidez merkaturatzeko proiektua da”

ikusgarri egin, eta sustatzeko.

Erronka ugari

2015ean abiatu zuten egitasmo hau, eta ordutik, urrats ezberdinak eman dituzte. Eskualdeko lehen sektoreko ekoizleak

identifikatzeari ekin zioten lehenik. Iaz, ingurumen klausulak ezartzen hasi ziren; horri esker, administrazio publikoa bertako produktuen kontsumitzaile nagusi bihurtzeko. Proiektu hau aurkeztea beste aurrerapauso bat izan da egitasmo honen sustatzaileentzat. Datozen hilabetei begira, eskualdean dauden ekoizleen eta produktuen gaineko informazioa, eskaintza, bilduko duen katalogoa argitaratu asmo dute, saltzaile eta kontsumitzaileak dabilzan gunetara (jatetxeak, saltokiak...) za-

baltzeko. Horrekin batera, banaketa unitate bat ere diseinatu nahi dute. Horretarako aurrez, Beterri-Buruntzan barruan zer ekoizten den, horren gaineko datuak bildu nahi dituzte. Hileroko eskualdean saldu eta erosten denari lotutako datuak ere jaso nahi dituzte.

Badute aurrera begirako beste erronka potolo bat ere; nekazari gehiago sortzea, jardun honetara jende gehiago erakartzea. Eta zereginotarako, lur pribatu eta publikoak eskuratzeko ekoizle berrientzat.

Adi pegatinei

Adi egoteko deia luzatu digute. “Eskualdeko herritarrek pegatina bat ikusten duten jatetxe, denda, taberna eta jangeletan bertako produktuak kontsumitu ahaliko ditu”, iragarri dute. Dagoeneko bertako produktuak eskaintzen dituzten 30 salmenta puntu inguru daude eskualde osoan. “Beraz adi egon seinaleri eta bertako produktuak kontsumitzeko jarraitu pegatinari”, adierazi dute.

Gai honi buruzko informazio zabalago eta eguneratua, beterrikm0.eus atarian duzue.

BIOTERRA 2018

#Bioterra2018

GONBIDAPENA

Sarreraren prezioa gonbidapen gabe: 3€ (12 urte arte doan)

Produktu ekologikoen, bideragunkortasunaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuen azoka

1 · 2 · 3

Ekaina. Ficoba. Irun.

bioterra.ficoba.org

Gonbidapen hau modu era azokaren sarreraren aurkatsu

energia berriztagarriak	osaketa	habitat onak
lur berriztagarriak	lurrik ekologikoa	ekoturismoa
nekazaritza ekologikoa	zontzuen kontsumoa	elkaskara azokaren
baselak ekologikoa	terapiak naturalak	BIOTERRA

Ficoba. Zazpiz (Irunen) euskotriren

Bas Ficoba gozatu

Idoia Torregarai: “Umorea p...

NOAUA!ko lehendakaria edota Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) komunikazio-arduradun gisa ezagutuko dute askok. Lerrootan ordea, txikitatik etxean jasotako umorezale-tasunari buruz elkarrizketatu dugu Idoia Torregarai Martija. Umorezaletasunean egin duen ibilbideari buruz, eta umorezaletasunetik umoregile izatera egindako jauziaz. Jauzi horren azken mugarria, aurkeztu berri duen Barretartia berrituan aurki dezakegu. Orain umore zerbitzuak eskaintzen ditu.

NOAUA! Umore zale, umoregile, nola aurkeztu behar zaitugu?

Idoia Torregarai: Umorezalea. Umorista izan daiteke, umorera dedikatu eta besteei barre eginarazten diena eta bide horretan nik ez dut hainbeste esperientzia, profesionalki esan nahi dut. Gehiago definitzen naiz umorezale gisa. Orain, neure alderdi aktibista ere ateratzen ari da.

N. Odolean daramazu. Umorea eta Idoia lotzea, gurasoak aipatzea ere bada.

Aita txiste kontalari ezagun eta maitatua. Beregandik hartu nuen beti barrearen bidez, maitatua eta toki bat izateko eta estimatua izateko bidea. Ama berriz, beharbada ez hain ezaguna kanpora begira, baina



Orain umore zerbitzuak eskaintzen ditu barretartia.eus web orriaren bitartez.

IDOIA TORREGARAI

*“Eremu guztietan,
lanean edo maila
pertsonalean, dimentsio
hori neurea den
heinean, neurekin
daramat beti umorea”*

umore handikoa eta oso baikorra, beti bizitzari irribarre bat ateratzen diona. Bien arteko konbinazio bat izan naiteke edo bi iturri nahasketa horretatik jaso dut txikitatik, umorearen aldeko zaletasuna. Horregatik estimatzen dut hainbeste.

N. Arbasoengandik jasotakoa nola kudeatu duzu zure ibilbide pertsonal eta profesionalen?

Bizitza ulertzeko modu bat da. Nortasuna eraikitzeke une zail horretatik, nerabegarotik umorea ni izateko eta kokatzeko adierazle bat edo bizitzeko modu bat, jarrera bat da. Garai hartan badirudi hautu hori kontzienteago egin nuela, eta ordutik aurrera, umorerik gabeko bizitza ez dut ulertzen. Idoiak eta umoreak badute halako sinbiosi bat. Eremu guztietan, lanean edo alde pertsonalean, dimentsio hori neurea den heinean, neurekin daramat

beti.

N. Lehengoko Barretartiatik oraingora jauzi nabarmena dago. Azalduiguzu.

Blog bat izan da orain arte, orain webgune bat da. Eskaintza integralagoa izango duen zerbitzu enpresa. Bloga barruan du. Barretartiak, sormena, alde hausnartzaileagoa, umorea prestigiatzeko dibulgazioa eskaintzen nituela konturatu nintzen. Bide horretan inkontzienteki eman dut pauso berri hau. Umorea prestigiatzea lortu nahi dut, umorea euskaraz egitea sustatzea.

“Barretartiak beste ate asko irekitzea ekarri dit”

NOAUA! Beti partekatu izan duzu umore zaletasuna ingurukoekin. Baina bada une bat bestelako jauzi bat ematen duzuna. Noiz eta nolatan?

Idoia Torregarai: 2011. urtean. Jada ama nintzela, beste gauza batzuk egin nahian, umorea berriro kontzientziara ekarri eta

zerbait egin behar nuela jabetu nintzen. Une horretan modago zeuden blog bat irekitzea erabaki nuen, umoreari buruzkoa eta euskaraz. Hala sortu nuen barretartia.com bloga. Ordutik 300 sarrera edo egin ditut. Beti niretzat plazerrezko aseteroko eginbehar bat izan da.

Poz handiak ekarri dizkidan abiapuntua izan da. Umoreari eta generoari buruz Durangoko Plateruenean emandako lehen hitzaldia Barretartiatik etorri zen. Gero Hamaika Telebistatik elkarrizketa, Durangaldeko ikastetxe batek umorea landu nahi zuela esanez deitu zida-

ten. Baita Euskadi Irratitik, Info7tik, ETB-ko Atera Kontuak saiotik... Barretartiak beste ate asko irekitzea ekarri dit. Azken urteotan, hurrengo pausoa zein izan zitekeen liseritzen aritu naiz. Iazko urte amaieran barretartia.eus umore zerbitzuak irekitzea erabaki nuen.

restigiatzea lortu nahi dut”

NOAUA! Barretartia berria jendaurrean aurkeztu berri duzu. Egunotan zer jaso duzu?

Idoia Torregarai: Poz handia. Beste erditze bat bezala izan da. Gainera, Ion Markel bikotearekin batera egin dugun proiektua da. Horrek ere gehiago betetzen dizu. Bestetik, jendeari izugarri gustatu zaio umore zerbitzu kontzeptu hori. Atentzioa deitzen du. Nahita ere probokatzeraz joan nahi nuen. Izenburuarekin dagoeneko izan dut ze ideia ona dioena. Segituan ikastetxeetara ezagutzera eman dut. Lehen egunetan eskaerak jasotzen hasi nintzen, sorpresa alde horretatik.

N. “Bakean dagoenari, bakean utzi” bakarrikzeta saioaren bitartez, nolakoa izan da oholatza gainera igotze hori?

Mirari Martiarena eta biok aspalditik ezagutzen gara. Berak beti esaten du umore biakiak garela. Ezagutu ginenean segituan konektatu genuen umorearekin. Gauza amankomun asko ditugu; biok gara emakumeak, kazetariak, base-rritarak. Umore estilo berdina dugu. Elkarrizketa batean, biok zerbait egin beharko genuke



Mirari Martiarenarekin batera ‘Bakean dagoenari bakean utzi’ ikuskizuna eskaintzen du.

IDOIA TORREGARAI

**“Bakean dagoenari
bakean utzi... esperientzia
ezinhobea izaten ari da,
benetan betegarria”**

bota zidan eta nik zer gertatzen zaizu egiteko? erantzuterakoan, Mirarekin bakarrikzeta. Iazko Euskararen Egunean saio bat egiteko aukera izan zen Sutegin, NOAUA!ri esker. Metxa piztea bezalakoa izan zen, konturatu ginen ze ondo pasa genuen eta jendeak ere ondo pasa zuela. Honi jarraipena ematea erabaki genuen. Lankura jo genuen, apustu

ikaragarria egin zuten, nahiko itsuan gure alde.

Bost bat saio egin ditugu, eta esperientzia ezinhobea izaten ari da, benetan betegarria. Jendearen erantzuna oso ona izaten ari da. Batez ere etortzen zaizkigunak emakumeak dira, oso islatua ikusten dute euren burua. Gizonezko gehiagorik ere nahi genuke, gu ohituagoak baikaude haien kontuak entzutera. Gizonei ondo etorriko zaie gure kontuak entzutea ere. Datozenek nahiko barre egiten dute. Barre egiteaz gain, saiitzen gara, buruari buelta batzuk emarazten.

“Umoreak gorputza lasaitu eta indartzen du”

NOAUA! Umorearen onurak aipatuta, zeintzuk datozkizu burura?

Idoia Torregarai: Hainbat ikerketek egiaztatu duten moduan, batetik onura fisikoak. Barre egiten dugunean adibidez, bihotza indartu egiten dugu, baita gure sistema immunologikoa ere. Endorfinak askatzeko balio du eta horrek gure gorputza asko lasaitu eta indartzen du. Azala gaztetu eta digestioak hobetzeko, lo hobeto egiteko... ere balio du. Badira beste atal

batzuk, geroz eta gehiago ari direnak aztertzen, esaterako ze garrantzitsua den umorea giza harremanetarako, talde kohesioan, gure autoestiman, depresioari eta une zailei aurre egiten nola laguntzen duen...

N. Baliabideak eskaintzen ditu umoreak?

Bizitzarako eta egunerokotasunean sortzen diren gauza gogor horiek ere erlatibizatu eta buelta emateko. Umorea kontsumitzeko ohitura har-

tu, gauza komikoetan fokua jartzen ohitu dezakegu baita gorputza eta adimena. Trebatu daitekeen giza gaitasun bat da. Horregatik Barretartia Umore Zerbitzuko eskaintza edonori zuzendua dago. Ari-keta txiki bat; ispilu aurrean jarri eta saiatu nahiz eta hase-rrer edo gaizki egon, irribarre faltsu bat egiten. 20 segundu egonez gero, burmuina hasten da pentsatzen hor aldaketa bat dagoela eta horrek funtzionatzen du.

“Tresna eraginkorra da umorea”

NOAUA! Umorearen artean erreferentziak falta zaizkigula aipatu izan duzu, bai euskaraz, baita emakumezkoen artean ere.

Idoia Torregarai: Euskaraz alde horretatik gutxiago. Bertsolaritzan eta antzerkigintzan bada, baina behar-bada ez zen hain ezaguna hortik aparte. Horrek sortarazten zidan halako kezka bat. Aurreritzi asko daude. Gizarte honek asko mugatzen gaitu eta emakumeoi gehiago. Emakumeak izan behar du neurritsua, barre egingo du mutilek egindako txisteetat, izango da gehiagorik objektu subjektu baino. Horrek ere ezinegon sortarazten zidan. Sentitze nuen ez nintzela hor kokatzen, umorea egin eta jendeak aintzat hartzea nahi nuen. Tabuak diren gai batzuk, guretzat tabuagoak, puskatze aldera jo nahi nuen, eta esan, hemen bagaudela umorea egin nahi eta ahal dugun emakumeak.

N. Umorea jendartearen eragiteko arma potente bat izan daiteke.

Umorea da barre egitea, baina kalte handia egin daiteke. Umorea aztertzen ari garenean, beti pentsatu behar da egilearen eta hartzailearen arteko harremana nolakoa den. Botere toki batetik eginez gero, umore zapaltzailea izango da. Bion artean adostutako jokaleku batean baldin bagaude zirtoka egon gaitzeko biok eta ondo pasa. Bestea, behetik gora egiten dena da, kritika soziala egiteko balio du. Geroz eta gehiago jazartua izaten ari da.





“Ohore handia da guretzat”

Sagardo Eguneke irekiera ekitaldiko protagonistak herriko bi kirolari izan ziren: Haimar Zubeldia txirrindularia eta Asier Zubiria eskubaloiz jokalaria. Biek oraintsu eten dute ibilbide profesionala. Eguerdiko 11:30ean igo ziren frontoiko oholta gainera.

Haimar Zubeldia: “Gure-gurea dugun egun bat da”

Egun berezia izango zela aitortu zuen San Estebango txirrindulariak. “Huts egin dut hainbat urtetan baina deitu zidatenean segituan esan nuen baietz. Ohore bat da niretzat. Gure-gurea dugun egun bat da, herritarrekin batera disfrutatzeke. Eta horretara etorri naiz”.



Topa egin eta segidan abiatu zen Sagardo Eguna.

Asier Zubiria: “Sagardoa edan beldurrik gabe, ona da-eta”

Asier Zubiriak partida izan zuen bezperan, Bidasoa eskubaloiz taldearekin. “Zoragarria izan zen atzoko eguna. Azken partida nuen etxean, Artalekun. Eta espero dut gaurko

egunarekin asteburua boro-biltzea eta denak elkarrekin gozatzea. Sagardoa edan beldurrik gabe, ona da-eta!”.

Sagardo botila bana ireki eta lehen tragoa hartu ondoren abiatu zen 37. Sagardo Eguna.

II. Usurbilgo Herriko Etxea saria, Patxi Azkonobietarentzat

Iazko Sagardo Egunean, egurrezko ontzietan egindako sagardo lehiaketa jarri zen martxan. Bigarren edizioa ospatu zen igandean eta iazko garaile bera nagusitu da aurtengoan ere: Urdaira sagardotegiko Patxi Azkonobieta. Podiuma Josu Furundarenak eta Nerea Uribek osatu zuten. Guztira, Gipuzkoako 18 sagardogile aurkeztu ziren. Silvia Garcia Mugaritz jatetxeko somelierra eta Mikel Rodriguez Tolosaldea jatetxeko nagusia aritu ziren epaile lanetan.



Urdaira sagardotegiarentzat izan zen lehen saria. Bigarrena Josu Furundarenarentzat eta hirugarrena Nerea Uribek jaso zuen.

Botatzaile onena, Anartz Aizpurua

Anartz Aizpurua nagusitu zen sagardo botatzaileen lehiaketan. Antolaketako bi kide postuz postu ibili ziren eta zerbitzatzen ari ziren botatzaile guztien artean hiru lagun hautatu zituzten. Irabazlearen txapela ez ezik, Anartz Aizpuruak sagardo kaxa bat eta gazta bat eskuratu zituen. Kerman Errekondo bigarren sailkatu zen eta, horri esker, sagardoa eta gazta etxeratu zituen. Zuriko Lataillade hirugarren izan zen eta sagardo kaxa batekin jaitzi zen oholta gainetik. Joxe Juan Azkonobieta eta Rafa Ibargoiari aritu ziren epaile lanetan.



Kerman Errekondok eta Zuriko Latailladek osatu zuten podiuma.

Sakabanaketaren aurkako giza katea

Talogileek eta euskal preso eskubideen aldeko giza kateak girotu zuten goiza Erriain Usurbilen karpa gunean.



Giza katearen alde topa egin zuten Askatasuna plazan.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA
• komertzial instalazioak • beira bikoitza
• segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
• ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Autobus zerbitzua Iruñeako Euskal Herria Kantuz Egunera



"Iaz, Gasteizen 27 lagun izan ginen. Herritar edonork eman dezake izena, nahiz eta Kantu Taldekoa ez izan".

Zazpietan lehena aldarripean, Nafarroako hiriburuan, Iruñean ospatuko da aurtengo Euskal Herria Kantuz Eguna. Herri askotan kantuz girotzen dituzten taldeentzat, Kantu Jira Nazionala izango dena, ekainaren 2rako iragarri dute. Orreaga Fundazioak eta Euskal Herria Kantuzek antolatutako hitzordura joateko autobus zerbitzua antolatu du Usurbilgo Kantu Taldeak.

Ekainaren 2an

Ekainaren 2an, goizeko 08:30ean irtengo da Oiardo Kirodegitik. "Iaz, Gasteizen 27 lagun izan ginen, aurten jada, 20 apuntatuak daude. Herritar edonork eman dezake izena, nahiz eta Kantu Taldekoa ez izan". Izen emateko 40 euroko ordainketa egin beharko da maiatzaren 26a baino lehen, Laboral Kutxaren ondoko kontu zenbakian:

IBAN ES643035 0140 31 1401034498.

Argibide gehiago, 650 422 607 telefono zenbakian jaso ditzakezue.

Larunbat honetan, kantu jira Usurbilen

Iruñeako hitzorduaren aurretik, hileroko kantu jira larunbatean, oraingoa bai, arratsaldean, 19:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuta Kaxkoan barrena.

Palestinarrekin elkartasunez

Nakbaren 70. urtemugaren harira, Gazan martxoaren 30az geroztik gauzatzen ari diren Itzulera Handiaren Martxan dagoeneko 110 palestinar erail ditu Israeliek. Erahilketok salatu eta palestinarrei elkartasuna adierazteko elkarretaratzea egin zen aste hasieran Mikel Laboa plazan, Sortu Usurbilek deituta. "Free Palestine! Elkartasuna eta borroka!" aldarripean egin zuten mobilizazioa.



Astelehenean elkarretaratzea egin zuten Mikel Laboa plazan. Argazkia: Sortu.

Langile eta langabetuentzako ikastaroak

Ikastaroak Lanbide Eskolan izaten dira, astelehenetik ostegunera, 18:00-21:00 artean.

■ Maiatzak 29: mini-eolikoa (20 ordu).

Informazio gehiago:

zubigune.org/eu/cursos/
943 364 600 / 943 562 061

Sagardo Eguneko errifa zozketa

Mariskada ederra banatu dute aurten ere. 568 izan da zenbaki saritua, eta antolatzaileek berri eman bezala, "Aginagara joan da". Sagardo Egunez bestalde, elkarretaratze eta giza kate batekin, sakabanaketa amaitu eta euskal presoen eskubideen betearaztea galdegin zuten herritarrek; tartean, gundik 600 kilometrora Valentziako Picassenten espetxeraturik segitzen duten Xua, Olatz Lasagabaster eta Patxi Urangarenak. Gogoan izan, ostiral hau maiatzeko azkena izango dugula; Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituta elkarretaratzea izango da 20:00etan Mikel Laboa plazan.



568 zenbakiarekin mariskada bat tokatu zitzaion Sagardo Egunean.

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Okidegia-Gozotegia

LABE-GOXO

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

649 43 54 75
943 36 72 64

IT-ak
egiten dira

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Udal diru-laguntzak, alegazio epean

Udal Diru-Laguntzen Batzordeak 2018rako diru-laguntza deialdie-tara aurkezturiko eskaerak az-tertu eta behin behinean onar-tu dituztela berri eman dute. Gogoan izan, guztira 180.000 euro banatu asmo du Udalak kultura, kirola, ingurumena, nekazaritza eta gizartegin-tzako egitasmoetara. Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofi-zialean argitaratu zuten maia-tzaren 17an. Hortik aurrera, alegazioak aurkezteko 10 egu-neko epea dago, maiatzaren 31ra arte (egun hau barne).

Diru kopuru potoloena, kul-tur egitasmoetara bideratuko da. 12 urteotan bezala, talde eta ekintza kopurua mantendu dela ohartarazi dute Udaletik, "Usurbil herri bizia eta dina-mikoa den seinale". Auzoen arteko oreka bermatzen eta izaera bereko egitasmoetan irizpide berak ezartzen ahale-gindu direla nabarmendu dute. Herritarren parte hartzea eta interakzioa sustatzen dutenak lehenesten saiatu direla.



Alegazioak aurkezteko 10 eguneko tarte izango dute interesdunek. 'Handia' filma Sutegin eskaini zuten egunekoa da argazkia.

IRIZPIDEAK

Herritarren parte hartzea eta interakzioa sustatzen dutenak lehenesten saiatuko da Udala

Gai honen beste muturrean, ingurumeneko diru-laguntza deialdia dugu. Udalak bana-tu asmo zituen 5.000 eurotik

1.803 euro banatuko dira soilik, erakundeak nahiz norba-nakoak aurkez zitezkeen arren. "Jendeak uste du ingurumena-rekin lotutako egitasmo han-diak laguntzeko direa soilik. Norbanakoak energia murriz-teko egiten ditugun argi edo leiho aldaketak, esaterako, diru-laguntza honetara aur-kez daitezke", gogorarazi dute Udaletik.

2019an hobekuntzak

2019ari begira hobekuntza batzuk txertatu asmo dituz-tela berri eman dute, Zirra-ra: diru-laguntza publikoen inpaktua neurtzeko egin du-ten ikerketaren ondorioak aintzakotzat hartuta. Horien artean, iragarri dutenez, "sor-sortzaileen lana diruz lagun-tzeko bideari heldu nahi dio Udalak".

2018ko diru-laguntzak, zenbakitan

Honatz Usurbilgo Udaletik helarazi dituzten gai honi buruzko datu sorta:

Kultura:

- Aurkezturiko taldeak: 18.
- Diruz laguntzea eskatu di-ren ekintzak: 90 (Onartuak: 79. Baztertuak: 11).
- Banatzea aurreikusten zen laguntza: 80.000 euro.
- Banatuko asmo den lagun-tza: 78.759,79 euro.

Kirola:

- Banatu asmo den laguntza, 50.000 euro:

- 45.000 euro herriko kirol tal-deen artean.
- 2.320 euro parekidetasuna sustatzen duten ekimenetara.
- 3.000 euro kirol egokitua la-guntzera.
- 1.000 euro kirol elkarte ez di-renen kirol jardueretara.

Gizartegintza:

- Laguntza jasoko duten tal-deak: 19 (gizarte zerbitzuekin elkarlanean aritzen diren Gi-puzkoa mailako taldeak de-nak).
- Jasoko duten diru kopurua: 12.000 euro.

- Beste laguntzak: igogailuak instalatzeko deialdira (eskae-ra bakoitzeko gehienez 1.000 euro ematea aurreikusten zen) ez da eskaerarik aurkez-tu. Deserrotze eta baztertze arriskuan daudenentzako di-ru-laguntza deialdira eskaera bakarra aurkeztu da.

Ingurumena:

- Aurkezturiko eskaerak: 8 (Onartutakoak: 6. Baztertu-takoak: 2).
- Banatuko den laguntza: aurreikusitako 5.000 eurotik 1.803 euro.



Diru kopuru potoloena, kultur egitasmoetara bideratuko da.

Nekazaritza eta abeltzaintza:

- Aurkezturiko eskaerak: 11 (Guztiak onartuak).
- Banatuko den laguntza: 14.180,84 euro.

Kadeteen eskubaloi taldea pozik itzuli da Bartzelonatik

Usurbil Kirol Elkarteko kadete mutilen taldeak, klubeko kide eta senideekin asteburuan atera zuten argazkia duzue ondokoa. Euskadiko Txapelketan hirugarren postuan amaitu ostean, Espainiko Sektorea jokatzeko sailkatu ziren. Bartzelonan izan dira asteburuan. Handik bueltatzerakoan helarazi diguten argazkia duzue ondokoa. Denboraldi borobil askoa osatu dute. Zorionak! Argazkia: Usurbil Kirol Elkartea.



Bartzelonan izan ziren asteburuan.

Atzeraturiko pilota jaialdia ostiral honetan jokatu da

Garfe enpresak Usurbilgo Udalaren laguntzaz antolatutako jaialdia ostiral honetan ospatuko da 19:00etan hasita frontoian, pilotari baten lesioa tarteko hitzordua bi astez atzeratu ostean.

Maiatzaren 11rako sarrera eresia zenutenok, jaialdi honetarako baliatu ahalko duzue. Txartela ez duenak aurrez eskura dezake 9 eurotan Aitzaga edo Txiribogan. Egunean

bertan 12 eurotan. Haurrek 5 eurotan.

Bi neurketa:


Garfe enpresak antolatu duen festibalaren baitan, bi partida jokatu dira:

Pala neskak:

- Larrarte-Maiza
- Balerdi-Arrillaga

Eskupilota mutilak:

- Xala-Santxez
- Santxo-Gorrotxategi



Xalak Santxezekin osatuko du bikotea.

Kanpazar-Arlaban arteko irteerako izen ematea

Ekainaren 3ko txangorako inskripzio epea maiatzaren 30ean itxiko du Andatza M.K.T.-k. Gipuzkoako Berraren bosgarren etapa, 27 kilomerokoa izango da. Kanpazar (Arrasate) eta Arlaban (Leintz-Gatzaga) lotuko ditu.

Informazio gehiago:

andatza.com



Ekainaren 3an egingo da irteera baina aldeztu aurretik eman behar da izena.

Ekainaren 1ean, "Tomaxen abenturak" Santuenean

4 urtetik gorakoentzat antolatu du Santuenea Kultur Elkartek haur ikuskizuna ekainaren 1ean, 17:00etan hasita auzoko frontoian. "Muxugorrik, Tomax liburutegira joateko konbentzitu du, han ipuinekin, antzerkiak sortuko dituztelako. Beraz, "Txanogorritxo", "Hiru txeritxo" eta "Hamelingo txirularia", bere erara antzeztuko dute. Barre egin, ondo pasa, kanta, dantza eta magia guztiak dibertitzeko. Antzezlan familiarra: gurasoek ere primeran pasatzen dute".

ARRANDEGIA PELLO
ORDUTEGI BERRIA:
ASTELEHENETIK-LARUNBATERA
9:00-13:30
ASTEARTE-ASTEAZKEN-OSTEGUNA
17:00-19:30
PUNTAPAX 7, 943 54 37 94

Artzabal
barkariak EGUNERO
afariak, asteazkenetik larunbatera
943 362725 · 688 690 361

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK
943 36 91 39
www.artzabaljatetxea.eus

ETXEBIZITZA

Salgai

126m²ko pisua salgai Aginagan, 65m²ko ganbararekin. Oso eguzkitsua, dena kanpoaldera. Berritu beharra. Prezioa 186.000. 659257889 edo 680742504.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro² lokala salgai Munalurran. Etxea bihurtzeko baldintzak betetzen ditu. Prezioa: 68.000 euro. 943 916 182 (Jon).

90 m2 pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m2- terraza, 8 m2 trastelekua eta bertan 33 m2-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kafetegiak. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 359.000 euro. 679002101.

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Alokairuan

Pisu bat alokatzen da Santuenean. Tel. 679 366 415

Abendurako pisua alokairuan hartu nahi dut, Aginagan, Usurbilen edo Orion. 690 367 952

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokal bat alokatzen

da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

MOTORRA

Salmenta,

garaieak

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatzikalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m2-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean.

23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatzikalean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro² lokal bat salgai. Alperburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Daelin Message motorra salgai, 49 zilind. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negozio-garriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karrikakoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Zerbitzari bat behar dugu aste-burutarako Artzabal jatetxean eta udaran ordu gehiago. Tarte-ka asteburuak jai egiteko aukerarekin. Garrantziak euskara jakitea eta esperientzia izatea. artzabaljatetxea@gmail.com

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, erreferentzia onekin. 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauetan. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Pertsona helduak zaindiko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404 015.

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaila, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziak. 662 910 181

Interna bezala lan egingo nuke. Esperientziarekin. Paperak eguneratuta. Tel 682 723 520

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geria-



Zorionak Aimar!

Maiatzaren 23an 8 urte beteko dituzu. Muxu handi handi bat etxekoan partez!!!



Zorionak Iñigo!

Maiatzaren 28an, 10 urte beteko dituzu. Ondo pasa eta muxu asko etxekoan partez.



Zorionak!
Etxekoak,
zarena
zarela!



Zorionak Olatz! Kandelak gure bihotzetan pizturik dauzkagu eta ez ditugu itzaliko gurekin batera ufa egitera etortzen zaren arte.



Zorionak Maren!

Maiatzaren 29an, 4 urte beteko dituzu. Egun zoriontsu bat pasa dezazula. Muxu handi bat etxekoan partez.

Heriotzak

Garbiñe Arrojeria
Eguzkiza
47 urterekin hil zen
maiatzaren 18an
Usurbilen



OHARRA: 2018ko ekainaren 1ean aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: maiatzaren 28an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

triako eta lehen laguntzako eza-gutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsalde. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsalde. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauetan, asteburutan, externa bezala edo garbiketa lanetan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziak. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herriar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketarik egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabilta. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa,

aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oportunitate umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrik emateko prest egongo litzateke: euskeran, gaztelan, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketari. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenetik ostirale-

ra. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketari lan egingo. Interna moduan, orduka edo gauetz. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketari, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

BESTELAKOAK

Gerezi koloreko logela bat salgai. Egoera onean. Ohea, idazmahai, armairua eta apal bat. 400 euro. 600 320 967

Udarregi ikastolan klase partikularrik emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilita) eta enkortadorea salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. Telefono zenbakia: 637 974 994

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralerara: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....943 371 951
Atez ateko bulegoa.....900 776 776
Udaltzaingoa.....943 361 112
Udal zerbitzuak (Brigada).....943 370 148
Sexu Aholkularitza Gunea.....697 919 516
Gizarte Zerbitzuak.....943 377 110
Diputazioa - Basetxea.....943 361 215
Bake Epategia.....943 372 336
Udarregi Ikastola.....943 361 216
Haur Eskola.....943 374 061
Zubietako Lanbide Eskola.....943 364 600
Zubietako Herri Batzarra.....943 372 077
Hastapen tailerrak.....943 360 465
KZgunea.....943 023 684
Oiarde Kirolegia.....943 372 498
Sutegi Udal Liburutegia.....943 360 692
Zumarte Musika Eskola.....943 371 594
Etumeta AEK euskaltegia.....607 609 379
Kalezar Eguneke Zentroa.....943 365 249
Gure Pakea Zahar Egoitza.....943 368 770
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....943 371 751
Arrate Zahar Egoitza.....943 366 340
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....943 361 239
Noaua Kultur Elkarte.....943 360 321

Abere-Landare Babeslea.....943 376 650
Taxia (Angel).....607 928 770
Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....677 373 466
Eusko Tren.....943 470 976
LurraldeBus.....943 000 117
Korreos - posta zerbitzua.....943 362 894
Anbulategia.....943 362 013
Amenabar botika (Iñigo Oa).....943 376 076
Iturralde botika.....943 363 395
DYA.....943 464 622
Gurutze Gorria.....943 272 222
Emergentziak.....112
Genero-indarkeria, arreata ..900 840 111 / 016
Gonzalez Ehorztetxea.....943 362 163
Kutxabank.....943 361 202
Euskadiko Kutxa-Laborala943 364 740
Banco SabadellGuipuzcoano.....943 370 006
Banco Popular Español.....943 370 411
BBVA.....943 377 155
Caja Rural Kutxa.....943 368 842
Argindarra - Iberdrola.....901 202 020
Gas naturala - Naturgas.....902 123 456
Telefonica.....1004
Euskaltel.....900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 24 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 25 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 26 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 27 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Astelehena 28 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteartea 29 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteazkena 30 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Maiatzak 24 - Ekainak 03

Osteguna 31 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 01 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 02 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 03 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda maiatza

25 ostirala

- **Udaberri Festa 2018 Zubietan.** Ikus azpian.
- **Euskal presoen eta haien senideen eskubideen aldeko elkarretaratzea,** 20:00etan Mikel Laboa plazan.
- **Usurbilgo artixten solasaldia eta Andoni bakarlaria** 21:30ean Potxoenean.

26 larunbata

- **Tailerra: guraso eta seme-alaben arteko komunikazioaz** 10:00-12:00 Potxoenean.
- **Udaberri Festa 2018 Zubietan.** Ikus azpian.
- **Muxurbilgo ikasleen saioa** 12:00etan Sutegin.
- **Kantu-jira,** 19:00etan Mikel Laboa plazan.

27 igandea

- **Erromeria Artzabal gunean.** 18:30ean Manex Torrealdei eta Maitane Arteagarekin. Antolatzaileak: Artzabal, Guria eta Laukote.

Udaberri Festaren amaiera Zubietan

Zubietako Eskola Txikiko Guraso Elkartek antolaturiko Udaberri Festako azken ekintzak asteburuan:

Maiatzak 24, osteguna

- 16:30 Merendola.
- 17:00 Puzgarriak eta trebetasun frogak.

Maiatzak 25, ostirala

- 17:00 Antzerki eta dantza taldeko ikuskizunak.
- 18:00 Altxorraren bila.
- 19:00 Afari-merienda eta, ondoren, disko festa.

Maiatzak 26, larunbata

- 10:00 Eguneako irteera: orientazio froga



Ostiral arratsaldean antzerki eta dantza taldeko ikuskizunak. Argazkia, artxibokoa.

Pagoetako parkean, 10:00etan, Iturrranango parketxetik.

Antolatzailea: Zubietako Eskola Txikiko guraso elkarte.

Larunbatean, Muxurbilgo ikasleen emanaldia

Ikasturte amaierako emanaldia eskainiko dute antzerki taldeko kideek larunbat honetan, maiatzak 26, 12:00etan Sutegiko auditorioan.

Emanaldirako sarrera doakoa izango da. Gonbidapenak eskuratu beharko dira. Emanaldi egunean bertan Sutegin banatuko dituzte gonbidapenak.

Igandean, Erromeria Artzabal gunean

Ttipika Dantza Gidatuak taldeko bi kideren, Manex Torrealdairen eta Maitane Arteagaren eskutik, erromeria giroa igandean 18:30ean hasita Artzabal gunean. "Etorri dantzara!", luzatu dute gonbita antolatzaileek; Artzabal jatetxeak, Guria Tabernak eta Laukote okindegiak.

Datozenak

Solasaldi irekia:

"Identitatearen ibilbidea"

Maiatzaren 30ean asteazkenarekin, Elena Jimenez Usurbilgo Sexu Aholkularitza Guneako arduradunak hitzaldia eskainiko du Bihurri Ludo-teran. 17:00etan hasiko da gurasoei zuzenduriko hitzaldi-solasaldi irekia.

Udarregi Ikastolako

bazkideen ohiko batzarra

Udarregi Ikastolako bazkideek Sutegiko auditorioan batzeko deia jaso dute. Hitzordua, maiatzaren 31n asteazkena. 18:00etan lehen deialdia, hala badagokio, 18:30ean bigarren deialdia.

"Sagarrondotik sagardora" ikastaroa

"Sagarrondotik sagardora" ikastaroak aurrera darrai. Ekainaren 2an larunbatarekin, Aitor Etxeandiak "Sagastien udako kimaketa, gaitzak eta izurriteak" hitzaldia eskainiko du. 09:00etatik 13:00era, Potxoenean.

Izen ematea eta argibide gehiago:

943 361 114

alkartasuna@usurbil.com

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil


Erosi Usurbilen berriaren eskutik

Santa Ixabeletan
Usurbilen egingo da
zozketa, udalarekin eta
parte hartzen duten
merkatarl guztiekin
elkarlanean antolatuko
den ekitaldi batean.

saria

1.000 €

Laguntzaileak:



hurbilag

Antolatzailea:



berria
DEPARTAMENTS



HYPE Station®

7 urtetik aurrera

— Emaiozu play-ari eta gozatu. —

Bideo-jokoen maitaleentzako doako toki eksklusiboa.

Info. + www.urbil.es

